

ANIMALIAK EH-KO FESTETAN

Iristear da uda, eta honekin batera festak. Musika, dantza, janaria, kirola eta jokoetaz gain, askotan ahazten ditugunak bertan ere badaude: beste espezieetako animaliak. Euskal Herriko herri gehienetan animaliak esplotatu eta erabiltzen dira sokamuturretan, umeentzako jardueretan edota demetan. Beste batzuetan hil egiten ditugu, zezenketa eta arrantza edo ehiza txapelketetan, adibidez.

Baina, egiten diegun hori guztia sentitzen al dute animaliek? Gainontzeko espezieetako animaliek, gizakiok bezala, nerbio sistema zentralari esker sentitzen dute. Horrek beste animaliekin berdintzen gaitu, eta, aldi berean, landare eta beste izaki bizidunetatik bereiztu. Besteak beste, nerbio sistema zentralak sufritzeko eta gozatzeko ahalmena ematen digu animalia guztioi. Horregatik guztiok sufrimendutik aldendu eta ongizatea bilatzen dugu; hau da, mina ematen diguna ekiditen saiatzen gara.

Ikuskizun lotsagarri hauetan animaliek izugarri sufritzen dutela argi dago. Inork ez luke bere burua haiengatik aldatuko, inork ez luke plaza baten erdian soka bat lepoan duela arrastaka eta beldurtuta ibili nahi, inork ez luke harri batetik tiraka ibili nahi, inork ez du tirokatua izan nahi, ezta amu batez zulatua izan nahi ere. **Inork ez du erasotua izan nahi.** Guzti hau guretzat nahi ez badugu, logikoa da pentsatzea guk bezala sentitu eta bizitzeko interesa duen norbaitek ez duela beretzat nahi izango.

Espezismoa norbanakoak diskriminatzea da, espezieagatik. Arrazismoa arrazagatik, eta sexismoa generoagatik den bezala. Espezismoak garamatza gizakiak ez diren animalien oinarritzko interesak baztertzea, hau da, aske eta erasotuak izan gabe bizitzeko interesa ahaztera. Kultura espezista batean hazi garenez, ordea, ezinezko egiten zaigu ikustea zezenek, galaperrek, txerriek, arrainek edo zaldiek aske bizi nahi dutela. Gure ondasun ikusten ditugu, gure menara erabili ditzakegun objektu, gauza edo tresna bezala. **Hortaz Euskal Herriko festak espezistak direla baieztatu dezakegu.**

Diskriminazio irrazional eta injustua da espezismoa, ez baitago beste animaliangandik bereizten gaituen pisusko arrazoirik. Espezismoan oinarrituta, gizakiok historikoki botere erlazio bat eraiki dugu, sistema espezistan islatzen dena. Egun, gure onerako erabiltzen ditugu beste animaliak: jaiotzera behartu, guretzat izango diren etekinerako esplotatu eta beharrezkoak ez direnean hiltzen ditugu. Horren adibide da abeltzaintza taurinoa; zezenak gurutzatu, txikietatik “entrenatu”, suarekin markatu, plazetan ibili, eta nahiko etekin ematen ez dutenean hiltegi bidaltzen baitituzte. Plazan bertan gertatzen dena animalia hauek sufritzen duten zapalkuntzaren zati bat besterik ez da. Sistema espezista honetan gu gara pribilegiadunak, eta beste animalia guztiak zapalduak.

Herri gisa, lotsagarria da gizakiok horrelako praktikak ontzat jo eta, gure pribilegioak erabiliz, beste animaliak esplotatzen jarraitzea. Berdintasunean oinarritutako festak sortu nahi baditugu, beste espezieetako animalien interesak kontutan hartu behar ditugu. Festak gure jendartearen ispilua dira, eta festetan jada aurre egin beharreko arazo ugari baditugu ere ezin dugu ukatu **Animalien Askapena aldarrikapen horiei batu behar diegula.**

Gure herriak aurrerapauso ugari eman ditu historian zehar, harrotasunez, jendarte justuago bat sortzearen alde. Orain, garaia iritsi zaigu festetako animalien erabilera zalantzan jartzeko. Festak beste animaliak errespetatuz, elkartasunean eta berdintasunean eraiki ditzagun. Festak espezismorik gabe ospatzeko ordua da, festak ospatu eta animaliak askatzekoa.

Askekintza | www.askekintza.org

ARTÍCULO EN CASTELLANO



<https://www.esk.eus/index.php/es/133-qr/750-los-animales-en-las-fiestas-de-euskal-herria>